

Lazarraga Kultur Elkartea - Lan-deialdia

Eskaintzaren deskribapena:

Lazarraga Kultur Elkartea Oihaneder Euskararen Etxea-Gasteizko Kafe Antzokia egitasmoaren sustapen lana egiten ari den elkartea da. Egun Oihaneder Euskararen Etxeko kultur programazioaren ardura darama, eta deialdi honetan elkarteko lan-taldearen parte izatea eskaintzen da.

Deialdiaren helburua da sare sozialetako presentzia hobetuz komunikazio lana indartzea: bideogintza, askotariko multimedia euskarriak, estrategia eta kanpaina zehatzak, webgunearen kudeaketan laguntza...

Horrez gain, proiektuaren sustapenari, programazio kulturalari, produkzioari edo/eta dinamizazioari dagozkion lanak egitea ere gerta liteke, eta horrela elkartek dituen eguneroko lan-beharrei erantzuna emango litzaioke.

Lanpostuaren eginbeharrak:

- Komunikazio estrategia orokorraren garapenean laguntza
- Sustapen kanpainen garapenean laguntza
- Kanal korporatiboak elikatzen eta sustatzen laguntza: webgunea eta sare sozialak
- Multimedia euskarrien sorkuntza: bideoak, gif-ak, saretik mugitzeko irudi pertsonalizatuak-korporatiboak...
- Programatutako ekitaldien unean-uneko komunikazioan laguntza: argazkiak egin, sareak elikatu, irudiak grabatu...
- Elkarteko eguneroko beharretan laguntza: sustapena, produkzioa, dinamizazioa...

Nahitaezkoa:

- Euskara idatziz eta ahoz menperatzea. Gutxienez C1 maila
- Komunikazio ikasketak izatea
- Bideo-edizioan eta diseinu grafikoan eskarmentua izatea
 - Portfoliorik edo webgunerik izatekotan bidali esteka edo artxiboa bera
- Sare sozialen erabileran eskarmentua izatea (Twitter, WhatsApp, Facebook, Instagram, Youtube, Telegram, Mailchimp...)
- Ofimatika programen erabilera menperatzea
- Pertsona dinamikoa eta autonomoa izatea, eta komunikatzeko erraztasuna eta talde lanean aritzeko gaitasuna edukitzea

Baloratuko da:

- Komunikazio arloko lanetan esperientzia

- Kultur arloko lanetan esperientzia
- Webguneen sorkuntzan eta kudeaketan esperientzia
- Euskararen normalizazioaren testuinguruko eragileak ezagutzea, bereziki Gasteizkoak
- Euskara, euskal kultura edo aisialdi elkarteren bateko kidea izatea
- Hizkuntzen ezagutza: gaztelania, frantsesa eta ingelesa

Lan-baldintzak

- **Kontratu mota:** Praktiketako kontratua
- **Lanaldia:** Lanaldi erdia
- **Kontratuaren iraupena:** 6 hilabete, luzatzeko aukerarekin

Hautaketa prozesuaren jarraibideak

- Bidali curriculuma info@lazarraga.eus helbidera **2019ko urtarrilaren 13a** baino lehen
- Aukeratutako pertsona **otsailean** lanean hasteko prest egon beharko da